

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORBEIALDEKO KUADRILLA

Berdintasun teknikariaren plaza baterako oinarri espezifikoen II. eranskinean akatsak zuzentzea. Horren bidez, 2022ko abenduaren 21eko 146 zenbakidun ALHAOn argitaratutako 2022/3480 iragarkia zuzentzen da

146 zenbakidun ALHAOn, 2022ko abenduaren 21ean, asteazkenez, honakoak argitaratu ziren: Lehiaketa-oposizio sistemaren bidez berdintasun-teknikariaren lanpostu bat betetzeko deialdia, eta deialdi horren oinarri orokorrak eta espezifikoak; 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan. Lehendakaritzaren 2022ko abenduaren 13ko ebazpen bidez onartu zen azken deialdi hori.

Oinarriak argitaratu ondoren, oinarri espezifikoen II. eranskinean, ondorengo akatsak atzeman dira:

Lehenengoa: 1. Puntuan dagoen ezaugarrien koadroan

Honakoa dioen lekuan:

“Lizentziatura edo gradua, diplomatura edo baliokidea. 150 orduko berdintasun-ikastaroa”

Honakoa esan behar du:

“Lizentziatura edo gradua edo diplomatura edo baliokidea, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa, gutxienez 150 ordukoa, erakunde ofizial batek emana (unibertsitatea edo administrazio publikoa)”

Bigarrena: 2.3 puntuan

Honakoa dioen lekuan:

“Oinarri orokorretako 2. h) idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, lizentziatura edo gradua edo diplomatura edo baliokidea den titulazioa eskatzen da. 150 orduko berdintasun-ikastaroa.”

Honakoa esan behar du:

“Oinarri orokorretako 2.h) idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, lizentziatura edo gradua edo diplomatura edo baliokidea eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa eskatzen dira, gutxienez 150 ordukoa, erakunde ofizial batek emana (unibertsitateak edo administrazio publikoak)”

Hirugarrena: II. Eranskinaren tituluan

Honakoa dioen lekuan:

“20/2021 legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri espezifikoen eredua, administrazio bereziaren eskalaren azpieskala teknikoari (erdi-maila) dagokiona (lan kategoria)”

Honakoa esan behar du:

“20/2021 legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri espezifikoak, administrazio bereziaren eskalaren azpieskala teknikoari (erdi-maila) dagokiona (lan kategoria)”

Laugarrena: II. 4. Oinarrian

Honakoa dioen lekuan:

“A zatia: galdetegi bat izango da eta 20 galdera izango ditu erantzun beharrekoak. Galderak oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira; zehazki, galderen galdetegi batetik hautatutakoak.

Probak 20 puntutako balioa izango du gehienez. Erantzun zuzen bakoitzeko 0,75 puntu emango da eta erantzun okerre ez badute balio negatiborik izango.”

Honakoa esan behar du:

“A zatia: galdetegi bat izango da eta 20 galdera izango ditu erantzun beharrekoak. Galderak oinarri espezifiko hauen I. eranskineko gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira; zehazki, galderen galdetegi batetik hautatutakoak.

Probak 15 puntutako balioa izango du gehienez. Erantzun zuzen bakoitzeko 0,75 puntu emango da eta erantzun okerre ez badute balio negatiborik izango.”

Bostgarrena: II. 4. Oinarrian

Honakoa dioen lekuan:

“B zatia: 60 galderatako galdetegi bat izango da, hainbat erantzun-aukera dituena. Galdera horiek oinarri espezifiko hauen II. eranskinean jasotako gai-zerrenda orokorrari buruzkoak izango dira, eta galderak galdetegi baten artean aukeratuko dira.

Probak 60 puntutako balioa izango du gehienez. Erantzun zuzen bakoitzeko 0,75 puntu emango dira erantzun okerre ez badute balio negatiborik izango.”

Honakoa esan behar du:

“B zatia: 60 galderatako galdetegi bat izango da, hainbat erantzun-aukera dituena. Galdera horiek oinarri espezifiko hauen II. eranskinean jasotako gai-zerrenda orokorrari buruzkoak izango dira, eta galderak galdetegi baten artean aukeratuko dira.

Probak 45 puntutako balioa izango du gehienez. Erantzun zuzen bakoitzeko 0,75 puntu emango dira erantzun okerre ez badute balio negatiborik izango.”

Seigarrena: II. 4. Oinarrian

Honakoa dioen lekuan:

“Probaren gehienezko balioa 80 puntutakoa izango da (A zatiak, gaitegi orokorra, 0 eta 20 puntu bitartean eta B zatiak, gaitegi espezifikoa, 0 eta 60 puntu bitartean), eta kanporatuak izango dira, probaren bi atalen artean, 24 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 5. apartatuan aipatutako lekuetan.”

Honakoa esan behar du:

“Probaren gehienezko balioa 60 puntutakoa izango da (A zatiak, gaitegi orokorra, 0 eta 15 puntu bitartean eta B zatiak, gaitegi espezifikoa, 0 eta 45 puntu bitartean), eta kanporatuak izango dira, probaren bi atalen artean, 24 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 5. apartatuan aipatutako lekuetan.”

Denek jakin dezaten ematen da argitara.

Murgian, 2023ko otsailaren 2an

Presidentea

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA